

**a. Entzumena**

- a.1.- Gai izatea hizketaldi edo elkarrizketa luze samarra jarraitzeko, nahiz eta argi egituratuta egon ez, eta ideien arteko erlazioak berariaz adieraziak izan ez.
- a.2.- Gai izatea ahozko esaera eta esapide ugari ulertzeko, estilo eta tonu aldaketak ezagutzuz.
- a.3.- Gai izatea iragarki publikoen bidez zabaldutako informazioa jasotzeko, transmisioaren kalitatea txarra bada ere; esaterako, geltoki batea.
- a.4.- Gai izatea informazio tekniko konplexuak ulertzeko, esaterako produktu edo zerbitzu ezagunen argibideak edo funtzionamendua.
- a.5.- Gai izatea bere laneko edo ikasketa-arloko hitzaldiak edo aurkezpenak ulertzeko, edukiaren zein formaren aldetik konplexuak izan arren.
- a.6.- Gai izatea, ahalegin handiegirik gabe, filmak ulertzeko, argota edo esapide askotxo agertu arren.

**b. Irakurmena**

- b.1.- Gai izatea testu zorrotzak eta luzeak zuzen ulertzeko eta ahoz laburtzeko.
- b.2.- Gai izatea txosten zehatzak, analisiak eta iruzkinak irakurtzeko, iritziak, ikuspuntuak eta ideia-loturak ulertzuz.
- b.3.- Gai izatea bere arloan, goi mailako testuak ulertzeko -esaterako, ikerketa txostenak-, eta bertatik informazioak, ideiak eta iritziak ateratzeko.
- b.4.- Gai izatea argibide luze samarrak eta konplexuak ulertzeko -esaterako, tresna berri baten erabileraz-, nahiz eta bere laneko edo intereseko arloekin zerikusirik ez izan, beti irakurtzeko denbora nahikoa badu.
- b.5.- Gai izatea gaur egungo literatur testuak erraz irakurtzeko.
- b.6.- Gai izatea literatur testuetan, argumentuaz haratago joateko eta barneko mezuak, ideiak eta loturak harrapatzeko.
- b.7.- Gai izatea literatur lanen testuinguru sozial, politiko edo historikoari antzemateko.
- b.8.- Gai izatea edozein motatako gutunak irakurtzeko, inoiz hiztegia erabilita.

**c. Elkarrizketa**

- c.1.- Gai izatea jatorrizko hitzunen arteko elkarrizketa bizi batean zuzenean parte hartzeko.
- c.2.- Gai izatea erraz, zuzen et egoki hitz egiteko gai askoren gainean: gai orokorrak, lan esparrukoak, akademikoak eta zientifikoak.
- c.3.- Gai izatea jendartean modu malgu eta eraginkorrean hitz egiteko, sentimenduak azalduz, zeharkako aipamenak eginez edo umorea erabiliz.

**d. Ahozko adierazpena**

- d.1.- Gai izatea argi eta zehatz hitz egiteko, xehetasun eta guzti, gaiak zailak eta bihurriak badira ere.
- d.2.- Gai izatea testu luze eta bihurriak ahoz laburtzeko.
- d.3.- Gai izatea zerbait luze eta zabal azaltzeko, gaiak uztartuz, zenbait aspektu berezi garatuz eta bere hizketaldia egoki amaituz.
- d.4.- Gai izatea lan-esparru edo arlo pertsonaleko gaiak argi egituratuta aurkezteko, prestatutakotik aldenduz eta entzuleen galderei bat-batean erantzunez.

**e. Idazmena**

- e.1.- Gai izatea idatzi argiak eta irakurterrazak egiteko, gai askoren gainean, orokorrak zein lan esparrukoak.
- e.2.- Gai izatea gai zailak ere erraz eta ongi egituratuta aurkezteko, puntu nagusiak azpimarratuz -esaterako, idazlanetan edo lan txostenetan.
- e.3.- Gai izatea gertaera edo gai jakin baten iruzkina egiteko ikuspuntu ezberdinak azalduz, ideia nagusiak azpimarratuz eta bere arraznamenduak adibide zehatzez argituz.
- e.4.- Gai izatea hainbat iturburutako informazioa idatziz ulertzeko eta era koherentean laburtzeko.
- e.5.- Gai izatea eskutitz pertsonaletan sentimenduak, esperientziak eta gertaerak zehaztasunez deskribatzeko.
- e.6.- Gai izatea gutun formalak zuzen idazteko, adibidez, kexatzeko edo ikuspuntu baten alde edo aurka azaltzeko.
- e.7.- Gai izatea zuzentasun handiko testuak idazteko eta bere lexikoa eta idazkera moldatzeko, jasotzailearen, testu motaren eta gaiaren arabera.
- e.8.- Gaia da bere idazlanetan, irakurleari ongi egokitzen zaion idazkera ukeratzeko.

**f. Estrategiak**

- f.1.- Gai izatea loturazko esapide egokiak erabiltzeko, hitza hartzen duenean edota hitza galdu gabe pentsatzeko denbora irabazi nahi duenean.
- f.2.- Gai izatea bere hizketaldia besteenekin egoki lotzeko.
- f.3.- Gai izatea gogoratzen ez duen hitz bat antzeko batez ordezkatzeko, entzuleei arreta galarazi gabe.